

Lagunkliken zozketaren oinarriak

Zozketaren oinarriak

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Lagun Klik, S.L.U.-k (IFK: B44712792), aurrerantzean, Lagunklik; helbide soziala: Basurtuko Kaputxinoen kalea 6, 3. solairua (48013) duena, sustapen bat egingo du doako zerbitzu baten zozketaren bidez, 200 euroko mugaraino, Lagunklikek bere plataforman eskaintzen dituenetatik.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa hau Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legean aurreikusitakoaren babesean antolatu da, eta doakoa izango da; beraz, saria eskuratzeko ez da kuota edo zenbateko gehigarririk ordaindu beharko.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Zozketan parte hartu ahal izango dute 18 urtetik gorako pertsona fisikoek, baldin eta www.lagunklik.com webguneko bezero badira eta 2026ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean Lagunkliken zerbitzuren bat kontratatu badute.

Alta-prozesua osorik amaituta egon beharko da; horretarako, erabiltzaile-izena eta pasahitza sortuz erregistratu beharko da, eta alta-prozesuan emandako helbide elektronikoan ongietorri-mezua jaso beharko da.

Gainera, saria eman aurretik, kontratatutako zerbitzuaren ordainketa bezeroak behar bezala eginda izan beharko du.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxa Taldeko langile guztiak, bai eta zozketaren sustapenarekin eta gauzatzearekin zuzenean lotuta dauden pertsonak ere.

Saria jasotzeko eskubidea baliatu ahal izateko, irabazleak LABORAL Kutxa Taldeko edozein sozietaterekin kontratatutako produktu eta/edo zerbitzuei dagokienez bere obligazio ekonomiko guztiak egunean izan beharko ditu.

Egiaztapen horren emaitza negatiboa bada, irabazleak saria jasotzeko eskubidea galduko du, eta saria ordezkoari emango zaio, zozketan ateratako hurrenkerari jarraituz.

4.- Zozketa

Zozketa hilerio egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez, eta parte-hartzaile guztien artean egingo da, betiere zozketaren baldintzak ezarritako epearen barruan betetzen badituzte.

Era berean, 4 ordezeko hautatuko dira, saridunak baldintzak betetzen ez baditu edo sariari uko egiten badio.

Saridunarekin ezin bada harremanetan jarri zozketa egin den egunetik zenbatzen hasi eta 3 laneguneko epean, zozketan emandako telefono-zenbakiaren edo helbide elektronikoaren bidez, saria lehen ordezkoari eskainiko zaio. Harekin ere harremanetan jartzea posible ez bada, hurrengo ordezkoei eskainiko zaie, zozketan ateratako hurrenkerari jarraituz.

5.- Sariaren deskribapena eta ematea

Irabazlearekin harremanetan jartzeko, Lagunkliken alta ematean emandako helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia erabiliko da.

Saria Lagunklikek eskaintzen duen doako zerbitzu bat izango da, gehienez 200 euroko baliora arte. Dirua itzultzeko modalitatea aplikatzen bada, zenbatekoa irabazleak adierazitako banku-kontuan sartuko da, dagokion zerbitzua ordaindu dela egiaztatu ondoren.

Adinekoak eta/edo mendeakoak zaintzeko zerbitzuen kasuan, deskontua hasierako hautaketa-kuotari soilik aplikatuko zaio, eta ez zaintzailearen soldatari edo bestelako kontzeptuei.

6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarrean dagoen PFEZaren araudiak arautzen du, eta tributazioari lotuta dago. Sariaren zerga-eragina irabazlearen kontura izango da, eta Lagunklikek bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagozkion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

7.- Irudi-eskubideen lagapena

Zozketaren irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izateko, baimena eman behar dio Lagunkliki bere izena eta abizena, irabazle gisa, argitaratu ahal izateko 6 hilabetez, Lagunklikek zozketaren hedapenarako egokitzen jotzen dituen argitalpen edo euskarri elektronikoetan. Bestela, saria jasotzeko eskubidea galduko du, eta ordezkoiari emango zaio, zozketan ateratako hurrenkeraren arabera hautatuko dena.

Sustatzailea

Kanpainaren sustatzailea Lagun Klik, SLU da (egoitza soziala: Basurtuko Kaputxinoen kalea 6, 3. solairua, 48013 Bilbo-Bizkaia, identifikazio fiskaleko zenbakia: B44712792). LABORAL Kutxa Taldearen enpresa da, eta, besteak beste, marketplace motako plataforma bat jartzea du helburu. Une honetan, pertsonak, etxea eta autoa zaintzeko zerbitzuen salerosketako bitartekaritza burutzen du plataforma digitalak, komisionista gisa, zerbitzuak bilatzen dituztenen eta eskaintzen dituzten profesionalen artean. Ez erantzun mezu honi Lagunklikekin harremanetan jarri nahi baduzu, egin ezazu www.lagunklik.com helbidean.

Aplikazio-eremua

Kanpaina www.lagunklik.com webgunean edo 900 84 24 88 doako telefonoaren bidez egindako kontratazioetan aplikatuko da.